

# **Kataluniako Desobedientzia Kolektiboa**

## **Hasierako aurre-adierazpena**

Banako gizarte eta herritar mugimenduetan zenbait esperientzia ditugun pertsona batzuek esparru berri bat sortu dugu pairatzen ari garen zurrumbilo autoritarioari aurre egiteko.

Hasteko, onartzen dugu milaka katalan eta espainolei erasaten dien arazo oso larri baten aurrean gaudela, zifra oso handiekin -sinatzaileen artean batzuek lehen eskutik nozitu dute. Ezin dira pertsonak seinatu ez errudun bihurtu, ez herritarrak pandemia honetan administrazioek izandako geldotasunaren edo gaitasunik ezaren erantzule egin.

8 hilabete igaro dira pandemia egoera adierazi zenetik eta martxoko larrialdian administrazioek zalantza-benefizioa bazuten, orain ez dago premiaren aitzakiarik. Gobernuak ez dute zuzenbiderik herritarrei eurek euren gabeziekin kudeatzen jakin ez dutena galdegiteko.

Aspalditik datoz gabezia horiek: osasun sistema publikoen desagitea salatu genuen, duela 23 urtetik ona funtsezko osasun zerbitzuen kaltetan osasunaren eta farmaziaren arloko enpresa handien aldeko pribatizazioa jasan baitute, eta haiek pairatzen baitute delako gainezkatzeari. Halaber, pertsonarik zaurgarrien gehiegizko bakartzea salatu genuen. Mendetasun egoeran dauden pertsona horiek inoiz baino bakardade handiagoan daude.

Funtsezko eskubideen urraketa ezin da osasun publikoaren zioagatik zuritu egoera luze batean.

Herrialde batzuetan ez dituzte ezarri. Eta gaur egun haieran egoera hobea da, hala nola Suedian. Biztanle osasuntsuentzako murrizketekin ados ez dauden mediku eta zientzialarien mugimendu handiak daude, hala nola Great Barrington Adierazpena.

Oinarri zientifikorik gabeko arbitrariotasuna areagotzeak -hala nola etxeratze-aginduekin- babesgabetasun oso larria sortzen du geure eskubideei herri gisa eusteko. Are gehiago, historia ezagututa eta jakinda sistema totalitarioek nola erabili duten beti beldurra otzantasunik handiena lortzeko modu gisa.

Gainera, ez dago frogatuta murrizketa horiek orokorrean herritarren osasunaren onerako direnik. Izan ere, kezkatuta gaude ez dagoelako daturik beste kausa batzuek, hala nola minbiziek, gripeek, osasun laguntzarik ezak, suizidioek edo genero-indarkeriak, eragindako heriotzei buruz.

Gobernarien eta osasun agintarien mezuen xedea birusari distantziarekin eta babesarekin erasotzea den bitartean, sentitzen dugu ez dela hitz egiten gure immunitate-sistema indartzearen garrantziaz, hura izanik gaixotasunaren aurreko defentsarik onena.

Immunitate-sistema estresa, beldurra eta depresioa direla-eta ahuldu daiteke, eta hedabideen alarmismoak eta askatasunen errepresioak egoera horiek elikatzen dituzte. Eguzki-orduaren galera, ariketaren murrizketa eta elikadura okerragoa areagotzen dira itxialdiekin eta krisi ekonomikoarekin, eta haiek ere kaltetzen dute gure osasuna.

Era berean, gehiegizko eskola-protokoloak salatzen ditugu, haurren osasun fisiko, emozional eta psikologikoan eta gure kultura demokratikoan epe luzera izan ditzaketan ondorioengatik. Bestalde, ikusten dugu gure inguruko beste herrialde batzuek hartzen dituzten neurriak ez direla hain muturrekoak eta ez dituztela horrenbeste mugatzen haurren funtsezko eskubideak eta jolasteko, aske mugitzeko, besteekiko afektibitate eta harremaneko hezkuntza bat jasotzeko eta eragiten dieten erabakietan parte hartzeko beharrianak.

Administrazioek egoera gero eta estuagoan bizi den gizartearen bizkar uzten dute oraindik osasun, gizarte eta ekonomia egoeraren pisu guztia, desberdintasunetan sakontzen duten eta eraginkortasun urria erakutsi duten neurriekin. Berriz ere -2008ko krisialdian bezala-, multinazional handien eta batez ere multinazional digitalen alde egitea eta tokiko eta familiako ekonomiak hondoratzea hautatu da.

Etzeratze-agindua aplikatzea da urak gainezka egiteko falta zen tanta: oinarri zientifikorik gabe, osasun arazoa konpontzeko onurarik gabe; erabat urratzen du pertsona guztien askatasuna eta, bereziki, ahulenena, etxerik ez dutenena. Pertsona horiek kondenatuta daude kale hutsetan erabat bakarrik egotera eta egoera pertsonal, familiar eta ekonomikorik larrienak jasaten dituzte, haien bizia arriskurik handienean jar dezaketen lau hormen artera egotera kondenatuta.

Horregatik:

Estatuarekiko kontratu sozialaren kolapsoa barneratu eta gure komunitatearekiko loturak berregiten ditugu. Auzoa eta komunitatea osasungarriak dira. Bakartzeak, beldurrak, estresak eta norberaren ohiturak uzteak, ordea, ez dakarkigute onurarik gizaki gisa. Horregatik, nahi dugun bizitza eta berak dakarren poza berreskuratuko ditugu, estatuak zer ere dioen.

Batu egiten gaitu agintari horien jarrera paternalista eta ergeldutik askatzeko bidean, geure irizpideari pixkanaka eusteko eta haren arabera askatasunez jokatzeko.

Erantzukizun pertsonal eta kolektiboari dagokionez: bakoitzak har ditzala onura komunean pentsatuz egokitzen dituen osasun neurriak. Halaber, elkarrekin aldarrikatzen dugu gobernuak ez duela eskubiderik inori ezer ezartzeko. Gizartea haur gisa tratatzeko prozesu baten aurrean gaude, eta erakunde politiko eta sanitarioen tonua autoritarioa da, era arriskutsuan.

Herritarrak gobernu autoritarioetatik babesteko konkistatu ziren funtsezko eskubideak, eta orain haiek babestu eta erabili behar ditugu.

Hala, giza eskubideak erabiliz, esparru inklusibo bat eratzen dugu eta, beraz, jokabide arrazistak, sexistak eta homofoboak arbuiatzen ditugu. Pertsona guztienganako begirunea sortze-elementu bat da.

Eta hau diogu:

1. Ezetz gizarte eta eskubide zibilen murrizketei. Ezetz etxeratze-aginduari. Ezetz itxialdiei.
2. Ezetz denda txikien eta ostalaritzaren itxierari ... Tokiko ekonomia defenda dezagun!
3. Ezetz unibertsitateen aurrez aurreko itxierari.
4. Eragozpenak jartzen dizkiogu musukoa eraman beharrari, eta bereziki hauren kasuan.

Iragartzen dugu berreskuratuko ditugula aske mugitzeko, biltzeko, hezkuntzarako, manifestaziorako eskubideak, bizitza pribaturako, gure gorputzerako eta gure ekonomia zaintzeko eskubidea.

Posible egiteko kidetasunaren arabera tokiko autoantolakuntzarako deia egiten dugu.

Izan ere, pandemiaren unerik latzenetan, herriak, jakituriaz, bere burua antolatu zuen lurralde osoko auzo eta herrientzako elkar-laguntza taldeetan. Dei hau, larrialdiaren unean, herriaren zerbitzura egoteko lana lortu zuten talde horiei zabaldu nahi diegu, beharrezkoa denean desobediencia eginez berraktibatzeko.

Desobeditzea pentsatzen ari diren taldeak gurekin harremanetan jartzera adoretu nahi ditugu eta esparru komun berri bat eskaintzen dugu: Kataluniako Desobediencia Kolektiboa, koordinatzeko.

harremanak: [desobedienciacolectiva@riseup.net](mailto:desobedienciacolectiva@riseup.net)

Telegram taldea: <https://t.me/joinchat/CSeivFSYXmkx2uwPdQEC3Q>